

B euskararen BERRIPAPERA

Zinea Euskaraz

Euskal Autonomia Erkidegoko ume eta gaztetxo euskaldunei zinea euskaraz areto komertzialetan eta ordu komertzialetan eskaintzea da "Zinea Euskaraz" egitarauaren helburua. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak abian jarri duen egitasmo hau eredu-proiektu edo egitasmo pilotu moduan planteatu da: 1996an hiru filme bikoiztu ziren euskarara eta 1997an hiru gehiago bikoiztuko bidean dira.

Ekainaren 20an EAEko hiru lurraldeetako hiriburuetan eta Barakaldon "Rainbow" ("Ortzadarra") programa honetako lehen filmea estreinatu ondoren, filmea Euskal Autonomia Erkidegoko aretoz-areto ibiliko da.

Udazkenean ikusgai izango dira euskaraz "Wallace & Gromit, Mozketa sakona", 1996ko animazioarako Oscar Saria irabazi zuen filmea eta "Sagu txiki, sagu maite" marrazki bizidunetako filmea. 1998an estreinatuko dira hurrengo hiru filmak. Ondoren, eta ikusirik egitarau pilotu honen emaitzak, egitasmoaren ebaluazioa egingo da.

Proiektuaren helburu zehatzak

Proiektu honen bidez, ume eta gazte euskaldunei aisialdirako jarduerak berriak euskaraz eskaini nahi zaizkizkie, eta euskararen familiaren bidezko jarraipena bultzatzeko, guraso eta seme-alabentzako esparru berriak sustatu. Horretaz gain euskara ikusentzunezkoen arloan sartzea du helburu, eta bereziki gaur egun oso garrantzitsua den eremuan, hain zuzen ere zinean. Beste maila batean, arlo honetan bideratuta dauden ekimenak bate-

ratzea eta errentabilizatzea lortu nahi da, bai eta euskaraz lan egiten duten profesionalen lana bultzatu ere, zine-formatuan.

Finantzazioa

Proiektua hainbat erakunderen elkarlanari esker gauzatu da. Hori horrela, honako hauek dira "Zinea

Euskaraz" proiektua finantzatu duten erakunde publikoak:

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailsa, Arabako Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bizkaiko hainbat udal (Balmaseda, Bermeo, Elorrio, Ermua, Gernika-Lumo, Mungia eta Santurtzi), eta Gipuzkoako beste udal batzuk (Arrasate, Azpeitia, Beasain, Bergara,

Estreinatuko diren lehen hiru filmak

"Wallace & Gromit, Mozketa sakona" (Aardman Collection II): (Britania Handia) Nick Parken filmea. Plastilinez egindako figurak dira filmearen protagonistak. Filmeak oso kritika onak izan ditu eta 1996an "animazioerik onena"-ren Oscar Saria irabazi zuen. Eusko Jaurlaritzak filme honen eskubideak eskuratu ditu 3 urterako.

"Rainbow": (Kanada, Britania Handia) Motion Picturesen filmea da eta Columbiak banatuko du. Zuzendaria Bob Hoskins da, eta abenturazko filmea da. Protagonistak ortzadarra, txakur bat eta gaztetxo batzuk dira. Familia osoarentzako zine egokia da, oro har, baina bereziki 8-15 urteko gaztetxoentzat.



"Sagu txiki, sagu maite": Suedian egindako filmea da eta Lennart Gustafsson da filmearen zuzendaria. Marrazki bizidunak dira eta bi saguren nerabezaroa edo adolezentzia kontaktzen du filmak: familia eta lagunetik harremanak.

"Wallace & Gromit, Mozketa sakona" eta "Sagu txiki, sagu maite" irailetik aurrera egongo dira areto komertzialetan ikusgai.

SUMARIOA

- 1 Zinea Euskaraz**
- 2 Laburrak**
Mariasun Landa
Kontuan hartzeko
- 3 Kultura Sailaren eta Egunkariaren arteko hitzarmena**
Deialdia
Nazioarteko Terminologia Biltzarra
- 4 Izen-abizenek**
Santutegiko izen ohikoenen euskarazko formak
Lehen begiratuan

Donostia, Hernani, Legazpi, Mutriku, Oñati, Ordizia, Tolosa eta Zarautz).

Filmeen sustapena eta publizitatea

Egitarauaren promozio orokorra EITBren esku dago. EITBk filmeen publizitatea egiteaz gain, filmak aukeratzeko laguntza eman du eta Superbat Klubeko bazkideei egitarauaren berri zehatza emango die.

Filmeen aukeraketa

Zine-enpresa banatzaileek eta zine-arloan aritzen diren elkarteek eskaintako filmeekin zerranda bat osatu zen iaz. Kultura Sailak izendatutako aditu-batzordeak hiru filme aukeratu zituen zerranda horretatik, 1996an euskarara bikoiztuko. Aurten berdin jokatuko da hiru filme berriak aukeratu eta bikoiztuko.

LABURRAK

Merkataritzan Euskaraz

Lanean ere euskara normaltasun osoz erabiltzeko prest agertzen diren merkatariek gero eta gehiago dira. Hauei laguntzeko lan eta kontsultatresna egoki bat eskaini nahian *Merkataritzan Euskaraz* liburua argitaratu du Elhuyar Kultur Elkarteak. Merkatarientzat ezezki, administrazio-lanak burutzen dituen edozeinentzat edota lan-munduan euskararen erabileraz arduratuta dagoen edonorentzat ere egokia da. Zortzi ataletan banatuta honelakoak biltzen ditu liburua: dokumentuak erabiltzeko laguntzak (inprimakiak, txartelak, gutun komertzialak, fax-orrria eta antzekoak burutzeko laguntzak); data, ordutegia, erakuslehoetako oharra... eta era horretakoak adierazteko argibideak; hizkuntzari buruzko hainbat gai orokor (zenbakien idazkera, aditza, lexiko-sorkuntza, deklinabidea...) eta 1.300 hitz inguruko hiztegi elebidun laburra.



Euskararen erabilera-planak aztergai

Euskal Autonomi Erkidegoko 71 udal eta erakundetako euskara-teknikariak Hizkuntza Politikarako Sailordetzak Euskararen Erabilera Normalizatzeke Planen nondik norakoak azaltzeko prestatutako jardunaldietan hartu zuten parte joan den ekainan. Horrela, Euskararen Erabilera Normalizatzeke II. Plangintzaldia abian jartzeko lehen pausoa eman zen. Egitasmoaren berri ematearekin batera esperientziak trukatzeko eta planaren inguruko egitasmo pilotuak azaltzeko aukera ere izan zen. Besteak beste, Bergara eta Antzuolan azken bi urteetan martxan dauden AEBE (Administrazioan Euskara Bultzatu Erabiliz) planen metodologia eta administrazioetan euskaraz lan egiteko Hizkuntza Politikarako Sailordetzak prestatutako software berezia erakutsi ziren.

Mariasun Landa

Mariasun Landa Erreterian jaio zen 1949an.

Donostian Gizarte Laguntzaileko ikasketak egin eta Parisera jo zuen Filosofia ikastera. 1973an lizentziatu eta Euskal Herrira itzuli zen. Paristik itzulitakoan buru-belarri ekin zion euskara ikasteari. Zarauz eta Lasarteko ikastoletan 11 urtez, eta IRALEko euskara-irakasle 6 urtez aritu ondoren, gaur egun EHUko Donostiako Irakasle Eskolako Literaturaren Didaktikako irakasle da. Hainbat egunkari eta aldizkaritan idatzi eta gero, gaur egun haur eta gazteentzako literatur lanak idazten ditu. Lehen obra 1982an idatzi zuen, *Amets*

uhainak, ikastolan erabilitako ipuin zaharrak bilduz.

Gerora beste hainbat lan idatzi ditu, betiere haur eta gazteentzat, eta aurten urtearen amaieran 20.a kaleratuko du. Lizardi Saria 1984an *Txan fantasma* lanarekin eta Euskadi Saria 1991n, *Alex* obrarekin jaso ditu. IBBYk (*Gazte Literaturaren Nazioarteko Erakundeak*) bi urtetik behin ematen duen Andersen Sarirako aurkeztu du Mariasun Landa erakunde horretako euskal ordezkari den Galtzagorri taldeak.



IBBYk berak duen ohorezko liburu-zerrendan jada badu obra bat sartua (Iholdi, 1992). Mariasun Landaren obrak hainbat hizkuntzatarara (albaniera, grekera, katalanera, gaztelaniera, etab.) itzuli dira 1984az gero, baina frantsesa, ingelesa eta alemanierara aurten itzuli dira lehenengoz.

KONTUAN HARTZEKO

Udako Kirol Eskola

Azkeneko lau urteetan bezala, Deba bailarako udaletako Kirol eta Euskara zerbitzuek Kirola Euskaraz programa aurkeztu dute. Aurten proiektu berri bati, *Udako Kirol Eskola* izenekoari, ekin diote; uztailaren 14tik 18ra bitartean izango da eta bi helburu nagusi ditu: entrenatzaile, irakasle eta kirolarien prestakuntza hobetzea eta Euskal Herriko kirolariei elkarrekin euskararen eta kirolaren inguruan bizitzeko aukera ematea. Ikastaroak Eibar, Bergara, Arrasate, Aramaio eta Mutrikun izango dira. Ikastaroez gain ekintza osagarriak ere izango dira: kantariak, bertsolariak, diaporamak, dantzaldiak, etab.

CAF - Elhuyar Zientzi Dibulgaziorako IV. Sariak

Elhuyar Kultur Elkarteak eta Beasaingo CAF enpresak CAF-Elhuyar Zientzi Dibulgaziorako IV. Sariak antolatu dituzte. Ohi bezala, zientziaren eta teknologiaren dibulgazioarekin zerikusia duten euskarazko lanak aurkeztu ahal izango dira. Sariak bi atal izango ditu: batetik, idazle berrien dibulgazio-artikuluak eta, bestetik, dibulgazio-liburuak saritzeko. Lanak azaroaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira.

★ **Ahoz aho, belaunez belaun ... hil honetan non?**

**Uztailaren 7tik 13ra Mutrikun
Uztailaren 15etik 29ra Zamudio torrean**

Kultura Sailaren eta Egunkariaren arteko hitzarmena

Euskararen normalizazio bidean, datozen egunotan Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Euskaldunon Egunkariak hitzarmena sinatuko dute. Horren helburua egunkariaren kalitatea gero eta hobea izatea, irakurlegoa handitzea eta euskaldun guztiona bihurtzea da. Akordio honen arabera Egunkariak bideragarritasun-plana aurkeztuko du, honako atalok jasoko dituela, besteak beste: egungo merkatuaren azterketa eta datozen urteotarako aurreikuspenak, inprimatze-lanak, banaketa, inbertsioen finantzaketa, publizitatea eta autofinantzaketa handitzeko edota duen defizita ez areagotzeko konpromisoa. Bestalde Lan-batzordea eratuko da Egunkariaren, herri-aldizkariaren Topagunearen eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren artean. Batzorde horrek, osagarritasun irizpidean oinarrituz, elkarrekin eman daitezkeen urratsak finkatu eta areagotzeko asmoz ekimen zehatzak proposatu ahal izango ditu, hala nola, herri-mailako informazioa eskaintzea, gehigarri bereziak egitea, publizitatea kudeatzea, inprimatze kostuak

gutxitzea, banaketa hobetzea, etab. Egunkariak datozen urteotarako begiz jotzen dituen inbertsioen finantzaketa nola eta nondik bidera daitekeen aztertuko du. Hizkuntza Politikarako Sailordetza, Industria Saila eta Egunkariaren arteko Lan-batzordea eratuko da.



✓ Datozen egunotan Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Euskaldunon Egunkariak zarmena hitzarmena sinatuko dute.

Hitzarmen honetan Eusko Jaurlaritzatik Egunkariak jasoko duen dirulaguntza ere zehazten da. Batetik, euskal prentsa egitasmoak bideragarriago egiteko deialdiaren bidez, Egunkariak 120.000.000 pezetako dirulaguntza jasoko du. Eusko Jaurlaritzak

dirulaguntza hori %30ean haziko du 1998. urteko aurrekontuen zirriborroa prestatzerakoan. Bestalde, Kultura Sailak beste herri-aginteekin batera 20 milioi gehiago eskuratuko dizkio Egunkariari urtea bukatu baino lehen.

DEIALDIA

Euskal Gizartearen egoera saria


Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariak Euskal Gizartearen Egoera izeneko ikerketa-sarirako deialdia egin du Euskadiko egoera soziopolitikoari buruzko ikerketak saritzea da deialdi honen helburua. Lizentziadun unibertsitarioek eta edozein karreratan azken mailan dauden ikasleek har dezakete parte. Lanak aurkezteko epea 1997ko irailaren 10ean bukatuko da eta lanak euskaraz zein gaztelaniaz aurkez daitezke. Sari bakarria izango da lanak gaztelaniaz eta euskaraz aurkezten dituztenen artean erabakitzea; 1.000.000 pezetakoa izango da berau eta 250.000 pezetako akzesita ere egongo da.

Nazioarteko Terminologia Biltzarra

UZEI eta HAEEK antolatuta, terminologiari buruzko Nazioarteko Terminologia Biltzarra egingo da Donostian azaroaren 12tik 14ra bitartean. Arlo horretan lanean diharduten nazioarteko erakundeak bildu eta gizartearen eta hizkuntzaren onerako egitasmo komunak bideratzea da helburu nagusia. Bildutakoek terminologiaren hainbat alderdi landuko dituzte, hala nola, gaurko arazo nagusiak, normalizazioa, lexikografia, terminologia-bankuak, testu berezituaren idazketa,

terminologia eta itzulpenegintza, etab. Biltzarreko lan-hizkuntzak euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa izango dira. Biltzarrak dirauen bitartean terminologia lantzeko dauden aplikazio informatiko berrienak egongo dira ikusgai. Biltzarrean parte hartzeko matrikula egiteko epea, baldintza berezietako matrikula, jada irekita dago eta uztailaren 31n amaituko da; gainerakoan, matrikulazio-epea urriaren 31n amaituko da.





Jose Maria Jimeno Jurio

Jose María Jimeno Jurio historialari nafarraren *Navarra. Historia del euskara* ikerketa-liburua aurkeztu berri du Txalaparta argitaletxeak, Kulturaren Aldeko Euskal Fundazioarekin elkarlanean. Jose M^a Jimeno Jurio Artaxonan jaio zen 1927an. Nafarroako historia, folklorea eta geografia ikertu ditu, baina betiere ohizko historiografiak, arrazoi bategatik edo besteagatik, landu ez dituen gaiei helduta. 1991z geroztik ohorezko euskaltzain da. Aurkeztu

berria den liburuan euskarak Nafarroan izandako bilakaera historikoaren berri ematen da. Lana burutzeko dokumentazio asko erabili du Jose María Jimenok eta euskarari buruz gordeta zegoen hainbat datu esanguratsu argitara atera ditu. Barreiatuta zeuden euskarari buruzko hainbat ikerketa bildu eta edonoren esku jarri ere egin ditu. Liburua Nafarroa Oinez-eko antolatzaileek banatuko dute Tafallan urrian egingo den jaietan.

Xabier Erize Etxegarai

Xabier Erize ikerlari nafarrak Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoari buruzko doktorego tesia aurkeztu zuen ekainaren 2an Gasteizko Filologia eta Geografia eta Historiako Fakultatean. Tesiaren izenburua *Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxi-tuen bizitza: Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936)* da. Zuzendaria Pello Salaburu (EHUko errektorea eta euskaltzain osoa) izan zen eta epaimahaikide Patxi Altuna (euskaltzain osoa), Miren Azkarate (euskaltzain oso

eta EHUko Irakasleko errektoreordea), Orreaga Ibarra (Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea), Beñat Oihartzabal (euskaltzain osoa) eta Koldo Zuazo (euskaltzain urgazlea) izan ziren; gai cum laude nota jaso zuen aho batez. Xabier Erize Lleidan jaio zen 1955ean, baina gaur egun Nafarroan, Mendillorri, bizi da. Euskal Filologiako ikasketak egin zituen Gasteizko Filologia eta Geografia eta Historiako Fakultatean.




Santutegiko izen ohikoenen euskarazko formak

Euskaltzaindiak, Onomastika Batzordearen lanaren ondorioz, santutegiko izen ohikoenen euskarazko formak finkatu ditu bere azken erabakien artean; 300 izenez osaturiko zerrenda luzea aurkeztu du. Hainbat irizpide kontuan hartuta erabaki dira formak, hala nola, tradizioa (Jakue), batasuna (Iparralde-Hegoaldea eremua kontuan hartu eta biotako batean euskarazko forma gorde eta bestean erdarazkoa erabiltzen denean euskarazkoa hartu da: Eztebe) eta ortografi alorrekoak ('k' edo 'z' erabili 'c'-ren orde: Ignazio, Karlos; 'v' gorde: Veronika, etab.). Izendegia finkatzeko lehendik eginiko ahaleginak, Sabino Aranarena edo Luis Eleizalderena esaterako, ez ditu erabat baztertu eta pertsona-izen modura erabiltzeko ontzat ematen dituen arren (Joseba, Miren, Kepa, etab.) santutegian erabiltzekoak ez direla ohartarazten du Euskaltzaindiak. Beste izen batzuekin (izen lokalekin, hipo-koristikoeekin, afektibo edo txiki-garriekin, etab.ekin) ere antzera gertatzen da.

Lehen begiratuan

EIZI Eren Literatura Unibertsala proiektuko 100 obrak itzultzeko bidean hiru zenbaki kaleratu berriak dira. Bildumaren 59. zenbakia Pierre Ambroise Choderlos de Laclos-en *Harreman arriskutsuak* lanari dagokio; itzulpena Jon Muñoz Otaegi donostiarrak egin du. Herbert George Wells-en *Gizon Ikusezina*, berriz, Miren Arratibel donostiarrak itzuli egin du. Oraingoz bildumako azkena den liburua, 61. zenbakia, Donatien Alphonse François de Sade-ren *Justine* edo Bertutearen zorigaitzak da eta Mikel Hoyos Sein oiartzuarrak egin du itzulpena.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.: